

Eskuliburu laburra

RMX2040


realme

**Euskaltelek itzultako eta
ekoiztutako eskuliburua**



Ongi etorri realme mobile-ra

Eskuliburu honek telefonoa nola erabili behar den eta telefonoaren funtzio nagusiak zein diren azalduko dizu. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu realmeren gure webgune ofiziala.



Oharra

- ▶ Ez jarri telefonoa edo bateria berogailuen, etxetresna elektrikoaren edo sukaldeko ontzien ondoan edo barruan (adibidez, mikrouhinak, edozein motatako suak, edozein motatako labeak eta presio-eltzeak), bateria gehiegi berotu ez dadin eta/edo gailuan kalterik eragin ez dezan.
- ▶ Jatorrizko kargagailua, kablea eta bateria erabili. Fabrikatzailearen baimenik eta ziurtagiririk ez duten kargagailuek, kableek edo bateriek arazoak sor ditzakete: deskarga elektrikoak, suteak, leherketak, baterian kalteak edo beste arrisku batzuk.
- ▶ Atzeko karkasa ezin da kendu.

- ▶ Kargatu gailua giro-tenperatura eta aireztapen normalak dituen ingurune batean. Gailua 5 °C eta 35 °C arteko tenperatura dagoen ingurune batean kargatzea komeni da.

Nola behartu telefonoa berrabiaraztea

Telefonoa berrabiarazteko, luze sakatu pizteko/itzaltzeko botoia eta bolumen-botoia (+), realmeren hasierako animazioa agertu arte.

Realmeren “Klonatu telefonoa” funtzioa erabil dezakezu telefono zaharretik telefono berrira argazkiak, bideoak, musika, kontaktuak eta aplikazioak bizkor transferitzeko. Horretarako, segi urrats hauei:

1. Android telefono bat baduzu, lehenbizi eskaneatu jarraian ageri den QR kodea, eta, ondoren, deskargatu eta instalatu “Klonatu telefonoa”. Ireki aplikazioa bi telefonoetan, eta jarraitu pantailan agertzen diren jarraibideei, eragiketa osatzeko.



<https://i.donephone.coloros.com/download>

2. iPhone zahar bat baduzu, ireki “Klonatu telefonoa” zuzenean telefono berrian, eta jarraitu pantailan agertzen diren jarraibideei, iCloud-en kontuan saioa hasteko eta fitxategiak sinkronizatzeko.

Telefonoarekin datozen osagarriak

Telefono bat, kargagailu bat, USB kable bat, segurtasun-gida bat, eskuliburu labur bat, SIM txartela ateratzeko tresna bat, zorro babesle bat.

Zehaztapen teknikoak

Produktua	RMX2040
Pantailaren tamaina	6,5 hazbete
Neurriak	164,4x75,4x9,0(mm)
Bateria	4880mAh/18,88Wh(Min) 5000mAh/19,35Wh(Typ)
Kamera	48 Mpx + 8 Mpx + 2 Mpx + 2 Mpx-eko atzeko kamera laukoitza 16 Mpx-eko aurreko kamera
Ongi funtzionatzeko temperatura	0°C-35°C
SAR balioak	EE SAR 0,888W/kg(burua) 0,965W/kg(gorputza)

Irrati-uhinen zehaztapenak		
Irratia	Maiztasuna	Irteerako potentzia maximoa
GSM	850 MHz/900 MHz	32,5±1 dBm
	1.800 MHz/1.900 MHz	29,5±1 dBm
WCDMA	1/2/4 bandak	23±1 dBm
	5/8 bandak	23±1 dBm
LTE FDD	1/2/3/4 bandak	23±1 dBm
	5/8/20/28 bandak	23±1 dBm
	7 banda	23±1 dBm
LTF TDD	38/40/41 bandak	23±1 dBm
Bluetootha	2,4/-2,4835 GHz	7±2 dBm (EIRP)
2,4 G wifia	2,4/-2,4835 GHz	15±2 dBm (EIRP)
NFC	13,56 MHz	≤42 dBuA/m@10m



The N-Mark is a trademark or registered trademark of NFC Forum, Inc. in the United States and in other countries.

Some content may differ from your device depending on the region, service provider, or software version, and is subject to change without prior notice.

realme



5211733

V0.3



EAC

CE

